

OSO GUNEKO ERAKASKERA
1998-99ko IKHAS-URTEA

I ELHEKETA = ASTE HUNTAKO SOLAS GAIA.

1. Nola ho Gizona zen Lohilakot?
2. Nun eta noiz sortua zen?
3. Azkarra zena?

II

LOHILAKAT

Gaitzeko gizona zen Lohilakot. Orain chun bat urthe, iguzkiari zagon erxe batean, Jatsu-Lohilakatean sortua zen, Garaziko herri pollitenetarik batean, Suhuskuneko muga mugan.

Haur haurretik, zain-doblea¹ agertu zen, pegar eta ferretik², betherik, jostetan zeramazkala, biderik xutenetan bethi³ aterka, sekulan hatsantu ere gabe, orgarik pisuenak bi erhiz aldaratuz, behirik azkarrenak adarretarik zankez geldiaraziz. Haur hotza⁴, mukuzua baizik ez zen oraino, eta belharleatxunak⁵ behin baino gehiagotan sartzen zituen, xixtuz, belhar-tegi nekeenetan.

Geroxago, muthiko gazte paregabea egin zenean, Garaziko lau xokoetan, hartaz baizik ez zen mintzo jendea. Testament Zaharra, su-ondoan, behin baino gehiagotan irakurtzen entzuna ere zuelakotz, aitak, egun batez, erran omen zion bere semeari: Sanson zena haur bat baizik ez zela haren aldean.

Eta, urguilurik batre gabe, semeak sinhetsi zuen bere aita. Eta bertzalde, Sanson zenak bezala, ez othe zuen lepho-gibela⁶, xara⁷ beltz bat iduri, alimaleko ile batzuz estalia? Eta bere bi begi-ondoak, hala hala, Ahunxkiko khardoen pare ez othe ziren eginak, Sansonenak bezal bezala?

Handik harat, balentriarik handienak egiten zituen, uste⁸ betarik bezala. Aita, ama, haurrideak, adixkideak, zozotuak hari begira zauden denboran, Lohilakat gazteak behako bat ere ez zioten emaiten bere beso zainharteri⁹. Hamabi lagunen mahaina, hortzen artean egun batez altxatu eta kanporaino ereman ondoan, baso bat arno galdatzen zuen doi doia...

III ADITZ IKASKUNTZA.

31. Zeramazkala 32. Erran omen zion
33. Hari begira zauden 34. Ukanen zuen.

31. EREMAN. Indicatif. Imparfait. Pluriel

- Nik meramatzan = je les emmenais
Hik heramatzan = tu les emmenais
Zuk zineramatzan = vs les emmeniez
Harek zeramatzan = il les emmenait = zeramazkan
Guk gineramatzan = ns les emmenions
Zuek zineramatzaten = vs les emmeniez
Heiek zeramatzaten = ils les emmenaient

32. UKAN. Conj. à dble epl. Indic. Imparfait

- | | | |
|-----------------------------------|----------------------------|-----------|
| CDS. CIS | Hari = à lui | CDP - CIS |
| Nik mion = je le lui avais | Hizkion = je les lui avais | |
| Zuk zinion = vs le lui aviez | Zinizkion = | |
| Harek zion = il le lui avait | Ha zizkion = | |
| Guk ginion = ns le lui avions | G. ginizkion = | |
| Zuek zinioten = vs le lui aviez | Z. zinizkion = | |
| Heiek zioten = ils le lui avaient | He zizkion = etc. | |

Zuri = à vous CDS - CIS.

- Nik nauzun = je vous l'avais
Harek zauzun = il vous l'avait
Guk ginauzun = ns vous l'avions
Heiek zauzuten = ils vous l'avaient

CDP et CIS = N. nauzkizun, H zauzkizun
G. ginauzkizun = ns vs les avions, H. zauzkizuten

Neri = à moi CDS - CIS.

- Zuk zinautan = vous me l'aviez
Harek zautan = il me l'avait
Zuek zinautaten = vs me l'aviez
Heiek zautaten = ils me l'avaient

CDP et CIS = Zinauzkitan = vs me les aviez
etc. zauzkitan, zinauzkidaten, zauzkidaten.